

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAGRANGO UDALA

#### **Lagran eta Haraneko Udalen Elkartean estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea**

Idazkari-kontuhartzaile lanpostu hori bete behar da, bitarteko izendapena duen funtzionarioak betetzen ez duelako.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak hartu ditut kontuan, eta hau

#### EBATZI DUT

Lehenengoa. Hasiera ematea Lagrango eta Haraneko Udalen Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatzeko proposamenari, udal bien artean idazkari-kontuhartzaile lanpostu bat izateko, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan xedatutako moduren batean eta adierazten duten lehentasunaren arabera.

Bigarrena. Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartze eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimen-  
duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun ordena ezarri ondoren, eta Lagran eta Haraneko Udalen Elkartean izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, hamar egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Izena: idazkaria. 3. klasea.

Lan harremana: estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estaturako gaikuntza.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailletza.

Azpitaldea: A1/A2.

Destino-osagarriaren maila: 26.  
Berariazko osagarria: 28.000,00 euro.  
Hizkuntza eskakizuna: C1 simetrikoa (C1, C1).  
Derrigortasun data: 2025eko ekainaren 20a.

Lagran, 2026ko ekainaren 3a

*Alkate-udalburua*

*URTZI GAINZARAIN GONZÁLEZ DE DURANA*

### ERANSKINA

Nik, ..... jaunak/andreak (NANA: .....; jakinarazpenetarako helbidea: .....; telefono zenbakia: .....; Estatutako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa: ..... azpieskalakoa; gaur egun ..... lanpostuan dihardut, ..... toki erakunde, ..... (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: ..... / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran –lankidetzaren lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik–),

Adierazten dut

Jakin dudala Lagran eta Haraneko Udalen Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, eta behin-behineko izendapen bidez betetzeko aukera dagoela, zerbitzu eginkizunetan edo zereginen pilaketagatik.

Betetzen ditudala lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

Eskatzen dut

Lagran eta Haraneko Udalen Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunen bidez edo zeregin pilaketaren bidez (ezabatu soberan dagoena) betetzeko prozeduran parte hartzea.

Hauek eranstean ditut:

\* NANaren fotokopia.

\* Estatutako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

\* Metaketako postua eskatuz gero, zereginen pilaketengatik izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

\* Hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea.

....., 20.....(e) ko .....aren .....(a).

Sinadura: .....